



# Iritziak

## Denboraren bizitza, bizitzaren denbora



IRATI LABAIEN EGIGUREN  
EHU-KO IRAKASLEA

**H**asi al zarete udako oporraldia prestatzen? Hegaldia hartu al duzue dagoeneko? Goi-denboraldia izanda, modako tokietan erreserbak berehala agortzen dira, beraz, azti ibili! Kontuan hartu denbora urrea dela, eta aisialdiko parada ongi antolatzea ezinbestekoa dela probetxuzkoa izateko. Estresa eragin dezaketean auzi horien zurrunbiloan topatu ohi dugu geure burua oporraldiren bat gerturatzen den bakoitzean. Hainbaten arabera, osasun arazoak ere sor omen ditzake kontu honek.

Gaiak funts gutxikoa dirudien arren, ikerlan mordoa topatu dut sarean, eta neure inguruan ditudan lagunekin hausnarketa biziki interesgarriak sortzeko bidea ireki dit gainera. Agerikoa denez, aisialdia ulertzeko moduak askotarikoak dira, eta denboran zehar aldaketak ere izan dira. Baina bada ziurra den zerbait kontu honekin: aldaketak aldaketa, aisia izatea eta horren kudeaketa, lanari esleitutako denborari loturik egon dira beti, Brad Aeon Quebec-eko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak dioen legez. Txanpon beraren bi alde izango balira bezala.

Denboraren kudeaketa izenda genezakeen gai honek badu erroan hausnarketa filosofikorik; antzinako Greziako Sokratesen garaitik (edo are lehenagotik, nork jakin!) galdetu izan diogu geure buruari bizitzak zentzua izateko eta gustura bizitzeko eginbeharrekoen in-

Momentuko plazerean fokua jarri ordez, sare sozialetan zintzilikatu ohi ditugu probetxuzko gure bidaiak. Lehia moduko baten itxura ere hartzen du

guruan. Eta horrek, halabeharrez, bizitza ororen giltzarri den denbora jartzen du erdigunean. Mugatua den denbora. Gizakiaren historiaren bilakaeran aisialdi hitzaren presentzia anekdotikoa izango da ziurrenik; neronen aitona-amonon belaunaldia izan liteke mugarrri. Izan ere, denbora libre gutxi izango zuten etxeko lan, zaintza eta nekazaritza-lanen artean. Beharbada, egun aisialdian egin ohi diren hainbat ekintza goi-klaseko gizartearen esku egongo ziren garai hartan.

Gaur egun, denboraren kudeaketa hobetzeko, hots, gauzak hobeto eta azkarrago egiteko, teknika eta oharren inguruko aholkuak entzun eta irakur ditzakegu nonahi. Efizientzia eta produktibitatearekin uztartu ohi dira ideia asko, eta erroko hausnarketak egonik ere, bakanak eta azalekoak izan ohi dira. Aisialdia ere ahalik eta ondoen

maximizatzeko *tip* ugari aurki ditzakegu; pentsamendu utilitaristaren itzalpean bizi gara deskantsuan ere. Askotan, gainera, orokortuak bilakatu diren eginbeharren zerrendak ardatzen du gure denbora librea, hots, gure curriculum esperientziala osatzeak itsutzen gaitu hainbatetan. Momentuko plazerean fokua jarri ordez, sare sozialetan zintzilikatu ohi ditugu probetxuzko gure bidaiak. Hainbatetan lehia moduko baten itxura ere hartzen duela iruditzen zait.

Produktibotasunaz gain, astialdiaren merkantilizazioaz ere hitz egin du hainbat autorek. Hammermesh ekonomialariak, esaterako, baieztatzen du ondasunak eta zerbitzuak erosi eta disfrutatzeko gaitasuna azkarrago handitu dela azken horietaz gozatzeko erabilgarri dugun denbora baino. Egiatan, kapitalismoak nahi du ziurrenik ere gu kontsumituen egotea, bizitza kontenplatiboak ez baitu oraingoz etekin gehiegirik ematen.

Susmoa dut erroko hausnarketei aurre egitea dela erronka; benetan, norberak bere denbora nola kudeatu nahi duen erabakitzea. Eta askotan, erabaki hori hartzearen beldurrak paralizatu egiten gaitu, edota beste albo batera begiratzeko pasatzen dugu bizitzako denbora, inguruaren marea jarraituta. Denbora urrea omen da, dirua. Baina ondo asko dakigu denok ere, diruz erosi ezin dituzkeen bakarra dela denbora, bizitza. ●